**LEMOAKO UDALAREN LANPOSTUEN ZERRENDAN HUTSIK DAGOEN ESKOLA PUBLIKOKO ATEZAINAREN LANPOSTUA BETETZEKO PROZESUA ARAUTZEKO OINARRIAK**

**BASES REGULADORAS DEL PROCESO PARA LA PROVISIÓN DEL PUESTO DE TRABAJO DE CONSERJE DE LA ESCUELA PÚBLICA VACANTE EN LA RELACIÓN DE PUESTOS DEL AYUNTAMIENTO DE LEMOA**

***LEHENENGOA. DEIALDIAREN XEDEA.***

Oinarri hauen bidez, atezain bat hautatzeko lehiaketa-oposizioa arautzen da, lanaldi osoan eta funtzionario izaerarekin. Lanpostua hutsik dago. Horrenbestez, oinarri hauen bidez lanpostu hori betetzeko hautaketa-prozesua irekitzen da.

Hautaketa-prozesua lehiaketa-oposizio bidezkoa izango da, oinarri hauen bidez arautuko dena.

Ariketa baztertzaileak gainditzen dituzten hautagaiekin zerrenda bat osatuko da, eta deialdiko plaza bete ondoren, zerrenda hori gordeko da, lanpostu horren edo antzekoen beharrak betetzeari begira; betiere, ezartzen diren irizpideei jarraikiz. Lan-poltsaren indarraldia lau urtekoa izango da, hautaketa-prozesua amaitzen denetik aurrera.

***PRIMERA. OBJETO DE LA CONVOCATORIA.***

Mediante las presentes bases se regula el concurso-oposición para la selección de un conserje a jornada completa y con carácter de funcionario. El puesto se encuentra vacante. En consecuencia, mediante las presentes bases se abre el proceso de selección para la provisión de este puesto de trabajo.

El proceso de selección se realizará mediante concurso-oposición que estará regulado por las presentes bases.

La lista de aspirantes que, habiendo superado los ejercicios eliminatorios, excedan del número de plazas convocadas, será utilizada para cubrir necesidades de personal en puestos idénticos o similares, según los criterios que al efecto se establezcan. La duración de la bolsa de trabajo será de cuatro años, desde que finaliza el proceso de selección.

***BIGARRENA. LANPOSTUAREN EZAUGARRIAK.***

LEMOAko Udaleko funtzionarioen plantillako eskola publikoko atezainaren lanpostua hutsik geratu da; horixe da honen bidez bete nahi den lanpostua. Lanaldia % 100ekoa izango da, LEMOAko Udalak zehazten duen ordutegian. Lanpostuak funtzionario-izaera izango du (Administrazio Orokorreko eskala, menpekoen

***SEGUNDA. CARACTERÍSTICAS DEL PUESTO.***

El puesto a cubrir se corresponde con el de la plaza que ha quedado vacante de conserje de la escuela pública de la plantilla de personal funcionario del Ayuntamiento de LEMOA. La jornada de trabajo será del 100%, durante el horario determinado por el Ayuntamiento de LEMOA. El puesto tendrá carácter de funcionario, plaza perteneciente a la

maila, C sailkapen-taldea, C2 azpitaldea, 12. lanpostu-mailako osagarriarekin). Lanpostua hutsik dago Lemoako Udaleko funtzionarioen taulan. 2. hizkuntza-eskakizuna dagokio.

Escala de Administración General, clase de subalternos, en el grupo de clasificación C, subgrupo C2, con un Complemento de Destino de grado 12que se encuentra vacante en la tabla de personal funcionario del Ayuntamiento de Lemoa. Asimismo, tiene asignado el perfil lingüístico 2.

***HIRUGARRENA. LANPOSTUAREN EGINKIZUNAK.***

Saileko arduradunaren menpe egongo da. Haren eginkizunak izango dira eskola publikoaren zaintza, babesa eta mantentzea. Zehazki:

Eskola publikoa ireki eta ixtea, eta hala dagokionean, erabilerarako prestatzea: argiak, berogailua, segurtasun-aparatuak etab. piztu, erregulatu eta itzaltzea.

Eskola babestea, bereziki sarrerak eta irteerak zainduz. Eta, era berean, azpiegituren egoera era erabilera ona zaintzea.

Eskola mantendu eta kontserbatzeko lanak gauzatzea eta, hala badagokio, arkitekto teknikoari hautemandako edozein desbideratze, gorabehera edo arazo jakinaraztea.

Zerbitzu orokorretarako materiala erostea (gasolioa, garbiketarako materiala…) eta mantentze-lan orokorrak egitea. Baita, hala badagokio, bulego teknikoaren bidez erosketa baimentzeko eskaera gauzatzea ere.

Inausketa-lanak eta oro har eskolako lorategia mantentzea.

Lantresnen erabilera, mantentze eta kontserbazio egokia zaintzea.

***TERCERA. FUNCIONES DEL PUESTO.***

Dependerá del responsable del área y se responsabilizará de la vigilancia, custodia y mantenimiento de la escuela pública.

En concreto:

Apertura y cierre de la escuela pública, adecuándolo para su utilización a través del encendido, regulación y apagado de luces, calefacción, aparatos de seguridad, etc. en los momentos en que se determinen.

Custodia de la escuela, vigilando principalmente las entradas y salidas de la misma, y velar por el buen estado y utilización de las infraestructuras.

Realizar tareas de mantenimiento y conservación de la escuela, y en su caso comunicar a la arquitecta técnica cualquier desviación, incidencia, o anomalía detectada.

Compra de material para servicios generales (gasoil, material de limpieza,…) y mantenimiento general, y en su caso realizar la petición de autorización de compra a través de la oficina técnica.

Tareas de poda y mantenimiento del jardín de la escuela.

Cuidar el buen uso, mantenimiento y conservación de los útiles de trabajo.

Altzariak, tresnak, dokumentuak, etab. lekualdatzeko lanak gauzatzea.

Realizar labores de traslado de mobiliario, enseres, documentos, etc.

Eskolako baratzea eta animaliak (oiloak eta untxiak) zaindu eta mantentzea.

Cuidado y mantenimiento del huerto de la escuela, así como de los animales (gallinas y conejos).

Erretiratuen Etxearen gainean dauden kultur aretoetan berogailua mantendu eta kontrolatzea.

Mantenimiento y control de la calefacción de las aulas culturales existentes encima del Hogar del Jubilado.

Bere gaitasun eta ahalmen profesionalekin bat etorriz eska dakizkiokeen beste zeregin batzuk.

Realizar otras tareas que le sean encomendadas en coherencia con sus capacidades y aptitudes profesionales.

***LAUGARRENA. HAUTAGAIEN BALDINTZAK ETA BETEKIZUNAK.***

***CUARTA. CONDICIONES Y REQUISITOS DE LOS ASPIRANTES.***

Onartua izateko eta, hala badagokio, hautaketa-prozesu honetan parte hartzeko, betebehar hauek bete beharko dira:

a) Europar Batasunaren estatu kideetako baten herritarra izatea, Europar Batasunak eginiko eta Espainiako estatuak berretsitako Itunen arabera langileen zirkulazio askea aplikatzen duen estatuetako baten herritarra izatea, edo Espainian legezko egoitza duen atzerritarra izatea, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuko (Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena) 57. artikuluarekin bat etorriz.

Para ser admitido y, en su caso, tomar parte en el presente proceso de selección, serán requisitos necesarios los siguientes:

a) Ostentar la nacionalidad de alguno de los estado miembros de la Unión Europea, ser nacional de algún estado al que, en virtud de los Tratados Internacionales celebrados por la Unión Europea y ratificados por el estado español, le sea de aplicación la libre circulación de trabajadores o ser extranjero con residencia legal en España, a tenor del artículo 57 del Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público.

b) Era berean, parte hartu ahalko dute Espainiako herritarren eta Europar Batasunaren beste estatu kideetakoen ezkontideek, betiere zuzenbidez banatuta ez badaude, baita haren ondorengoek eta ezkontideenek ere, halaber, zuzenbidez banatuta ez badaude, hogeita bat (21) urtetik beherakoak badira edo nagusiagoak baina menpekotasunarekin.

b) También podrán participar el cónyuge de los ciudadanos españoles y de los de otros estados miembros de la Unión Europea, siempre que no estén separados de derecho, así como sus descendientes y los de su cónyuge, siempre, asimismo, que no estén separados de derecho, menores de veintiún (21) años o mayores de dicha edad dependientes.

c) Hamasei (16) urteak beteta izatea eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean, eta nahitaezko erretiroa hartzeko adina ez gainditzea.

c) Tener cumplidos dieciséis (16) años de edad en la fecha en que finalice el plazo de presentación de instancias y no exceder de la edad máxima de jubilación forzosa.

d) Eskola-graduatuaren titulua, LH I-ekoa edo antzeko mailako titulazioa edukitzea.

d) Estar en posesión de la titulación de Graduado Escolar, FP-I o titulación de nivel equivalente.

e) Lanpostuaren berezko eginkizunak gauzatzeko gaitasun funtzionala izatea. Dagokionean, proposatutako hautagaiak alderdi hori egiaztatu beharko du.

e) Poseer la capacidad funcional para el normal desempeño de las tareas propias del puesto. Este extremo habrá de acreditarlo en su momento el aspirante propuesto.

f) Diziplina-espediente batez edozein administrazio publiko edo autonomia erkidegoko organo konstituzional edo estatutarioen zerbitzutik bereizita ez egotea, ezta, ebazpen judizialaren arabera, enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza erabatekoa edo berezia izatea ere, funtzionarioen kidegora edo eskalara iristeko; edo langile lan-kontratudunen kasuan, bereiziak edo desgaituak izan diren lanpostuaren antzeko eginkizunak betetzeko. Beste estatu bateko herritarra izanez gero, desgaitua edo egoera baliokidean ez egotea, eta diziplina-zehapenik edo baliokiderik ez izatea, dagokion estatuan baldintza berberetan enplegu publikora iristea eragotziko duenik, hain zuzen.

f) No haber sido separado, mediante expediente disciplinario, del servicio de cualquiera de las Administraciones Públicas o de los órganos constitucionales o estatutarios de las Comunidades Autónomas, ni hallarse en inhabilitación absoluta o especial para empleos o cargos públicos por resolución judicial, para el acceso al cuerpo o escala de funcionario, o para ejercer funciones similares a las que desempeñaban en el caso del personal laboral, en el que hubiese sido separado o inhabilitado. En el caso de ser nacional de otro Estado, no hallarse inhabilitado o en situación equivalente ni haber sido sometido a sanción disciplinaria o equivalente que impida, en su Estado y en los mismos términos, el acceso al empleo público.

g) Enplegu publikora iristeko bestelako desgaikuntzarik edo bateraezintasunik tartean ez egotea, dagozkion lege-xedapenek zehaztutako baldintzetan.

g) No concurrir ninguna otra causa de incapacidad o de incompatibilidad para el acceso a la condición de empleado público, en los términos marcados por las respectivas disposiciones legales.

h) 2. hizkuntza-eskakizuna edo horren baliokidea edukitzea, edo maila hori egiaztatzea hautaketa-prozesuko dagozkion probak gaindituta.

i) B1 gidabaimena edukitzea.

h) Hallarse en posesión del Perfil Lingüístico 2 o equivalente, o acreditarlo mediante la superación de las correspondientes pruebas del proceso selectivo.

i) Estar en posesión del carné de conducir B1.

***<u>BOSGARRENA. ESKABIDEAK AURKEZTEA.</u>***

Hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabideak LEMOAko Udaleko alkate-udalburuari zuzenduko zaizkio, eta baldintza hauek bete beharko dira baztertuak ez izateko:

***<u>QUINTA. PRESENTACIÓN DE LAS INSTANCIAS.</u>***

Las instancias solicitando tomar parte en el proceso selectivo se dirigirán a la Sra. Alcaldesa-Presidenta del Ayuntamiento de LEMOA, debiendo reunir los siguientes requisitos para no ser rechazadas:

LEMOA UDALA

a) Hautagaiek jasota utzi beharko dute deialdiaren 4. oinarrian eskatutako baldintza guzti-guztiak betetzen dituztela, eskabideak aurkezteko epearen amaiera aintzat hartuta beti.

b) Eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

1. NANaren edo beste estatuetako hautagaien nortasuna eta nazionalitatea egiaztatzeko agiriaren fotokopia.

2. Deialdian parte hartzeko eskatzen den tituluaren fotokopia.

3. Euskararen ezagutza justifikatzeko, 2. hizkuntza-eskakizunaren edo euskarazko titulu baliokideen ziurtagirien kopia aurkeztu beharko da. Azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren (euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena) 3.1 artikuluarekin bat etorriz, adierazitako titulu eta ziurtagiriak 2. hizkuntza-eskakizunaren baliokide izango dira.

Eskatzen den hizkuntza-eskakizuna edo maila altuagokoa duten hautagaiek onarpen-eskabidean berariaz alegatuko dute hori, dagokion titulu edo ziurtagiria erantsita. Horren bidez, derrigorrezko probak egitetik salbuetsiko dira.

a) Los aspirantes deberán hacer constar que reúnen todas y cada una de las condiciones exigidas en la Base 4.ª de la convocatoria, referido siempre a la fecha de expiración del plazo de presentación de instancias.

b) Además, junto con la instancia, deberá presentarse la siguiente documentación:

1. Fotocopia del D.N.I. o del documento acreditativo de la identidad y de la nacionalidad de los aspirantes de otro estado.

2. Fotocopia del título exigido para tomar parte en la convocatoria.

3. Los conocimientos de euskera deberán ser justificados, en su caso, mediante fotocopia del documento acreditativo del cumplimiento del Perfil Lingüístico 2 o de alguno de los certificados o títulos de euskera equivalentes. De conformidad con el artículo 3.1. del Decreto 297/2010, de 9 de noviembre, de convalidación de títulos y certificados acreditativos de conocimientos de euskera, y equiparación con los niveles del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas, quedan convalidados al efecto de la acreditación del Perfil Lingüístico 2 los certificados y los títulos de euskera que allí se citan.

Los aspirantes que posean el Perfil Lingüístico a valorar o alguno superior habrán alegado expresamente esta circunstancia en su instancia de admisión y adjuntado a la misma el título o el certificado correspondiente, quedando así exentos de realizar las pruebas pertinentes.

Interesa duten hautagai guztientzat, 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko ahoz nahiz idatzizko probak egingo dira; probak IVAPek xede horretarako adierazitako edozein lekutan egin ahal izango dira. Nolanahi ere, proben ondoriozko edozein lekualdatze, mantenu eta abarren gastuak hautagaiaren konturakoak izango dira.

Para todos aquellos aspirantes interesados se realizarán pruebas tanto escritas como orales para la acreditación del Perfil Lingüístico 2. Tales pruebas podrán desarrollarse en cualquier lugar señalado al efecto por el I.V.A.P. En cualquier caso, los gastos de desplazamiento, de manutención, etc. que pudieran originarse como consecuencia de la realización de las mismas correrán por cuenta del aspirante.

4. Halaber, lehiaketa-fasean baloratzeko merituen inguruko datuak jasota utzi beharko dituzte, behar bezala egiaztatuta. Lan-esperientzia dagokion enpresak edo administrazioak eginiko ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da; bertan, kontratuaren iraupena eta eginiko lanak zehaztu beharko dira.

Eskabidearekin batera zehaztu edo egiaztatzen ez diren merituak ez dira baloratuko.

Eskabideak behar bezala beteta aurkeztuko dira LEMOAko Udaleko Erregistro Orokorrean. Horretarako, 20 egun naturaleko epea egongo da, hautaketa-prozesua arautzeko oinarriak Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Fotokopiak konpultsatuak izan behar dira.

4. Asimismo, deberán hacer constar los datos relativos a los méritos a valorar en la fase de concurso, debidamente acreditados. La experiencia laboral deberá acreditarse mediante certificación expedida por la empresa o por la administración correspondiente, en la que se especificarán la duración del contrato así como las labores realizadas.

No serán objeto de valoración aquellos méritos que no se detallen o se acrediten con la instancia.

Las instancias se presentarán debidamente cumplimentadas en el Registro General del Ayuntamiento de LEMOA en el plazo de 20 días naturales contados desde el día siguiente al de la publicación de las bases reguladoras del proceso de selección en el *Boletín Oficial del Estado*.

Las fotocopias deberán ser compulsadas.

Eskabideak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako formetako edozeinetan aurkeztu ahalko dira. Kasu horretan, dagokion funtzionarioak zigilatu eta data jarri beharko die, eskabideak aurkezteko epearen barruan; soilik horrela ulertuko da eskabideak LEMOAko Udalaren Erregistro Orokorrean sartu direla Erregistroetan edo Correosen bulegoetan aurkeztu ziren egun berean.

Igualmente, las instancias podrán presentarse en cualquiera de las formas señaladas en el artículo 16.4. de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. En tal caso, deberán ser fechadas y selladas por el funcionario correspondiente dentro del plazo de presentación de instancias; sólo así se entenderá que las instancias han tenido entrada en el Registro General del Ayuntamiento de LEMOA en la fecha en que fueron entregadas en los Registro o en las oficinas de Correos de referencia.

Hauteman litezkeen egitezko okerrak edozein unetan zuzendu ahalko dira, ofizioz edo interesdunak hala eskatuta. Ez dira egitezko okertzat joko eskabidean merituak ez alegatzea edo eskabidearekin batera merituak egiaztatzeko agiriak ez aurkeztea. Interesdunaren aldetik alderdi horri buruko omisioren bat hautematen bada, eskabideak aurkezteko epea amaitu arte zuzendu ahal izango du. Epea amaitu ondoren, ez da zuzenketarik onartuko. Hori guztia aurrerago euskararen ezagutzen egiaztapenari buruz esango denaren kalterik gabe.

Los errores de hecho que pudieran advertirse podrán ser subsanados en cualquier momento, de oficio o a petición del interesado. No se considerarán errores de hecho la no alegación en la instancia de los méritos o la no incorporación a aquella de los documentos acreditativos de los mismos. Si por parte del interesado se advirtiera alguna omisión sobre este particular, podrá subsanarla hasta la finalización del plazo para la presentación de instancias; una vez finalizado dicho plazo, no se admitirá la subsanación. Todo ello sin perjuicio de lo que luego se dirá sobre la acreditación de los conocimientos de euskera.

***SEIGARRENA. HAUTAGAIAK ONARTZEA.***

Eskabideak aurkezteko epea bukatuta, Udalbatzako alkate-udalburuak onartutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko errenda onetsiko du, dagokionean, baztertzeko arrazoiak adierazita. Zerrenda hori BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALean argitaratu eta LEMOAko Udalaren iragarki-taulan eta webgunean (www.lemoa.net) jarriko da jendaurrean.

Erreklamaziorik aurkeztu ezean, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda hori behin betikotzat joko da zuzenean. Halakorik bada, ordea, horiek aintzat hartu edo gaitzetsiko dira, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda goian adierazitako moduan argitaratu baino lehen.

***SEXTA. ADMISIÓN DE LOS ASPIRANTES.***

Finalizado el período de presentación de instancias, la Sra. Alcaldesa Presidenta de la Corporación aprobará la relación provisional de aspirantes admitidos y excluidos, con indicación, en su caso, de las causas de exclusión, que será publicada en el BOLETIN OFICIAL de BIZKAIA y expuesta en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento de LEMOA, así como en la página web municipal (www.lemoa.net).

La relación provisional de admitidos y excluidos se entenderá automáticamente elevada a definitiva si no se presentaran reclamaciones. Si las hubiere, serán estimadas o desestimadas, por la que se expondrá la relación definitiva de aspirantes admitidos y excluidos en la forma arriba indicada.

***ZAZPIGARRENA. EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEA.***

Epaimahai Kalifikatzailea titularren eta ordezkoek osatuko dute. Osaera LEMOAko Udalaren iragarki-taulan nahiz webgunean (www.lemoa.net) eta BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALean argitaratuko da. Honela osatuko da:

Mahaiburua:

Administrazioko funtzionario bat.

Kideak:

- Hirigintza Saileko teknikari bat.

***SÉPTIMA. TRIBUNAL CALIFICADOR.***

El Tribunal Calificador estará compuesto por miembros titulares y suplentes, cuya designación será expuesta en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento de LEMOA y publicada en el BOLETIN OFICIAL de BIZKAIA, así como en la página web municipal (www.lemoa.net), quedando constituido de la siguiente forma:

Presidente/a:

Un Funcionario/a de la Administración.

Vocales:

- Un técnico del Departamento de Urbanismo.

- LEMOAko obren lantaldeko arduraduna.

-Obren lantaldeko kide bat, sailkapen berekoa edo altuagokoa.

-Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko ordezkari bat.

- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko ordezkari bat, deialdian baloratuko den hizkuntza-eskakizuna ziurtatzeko probak egiaztatzeko xede bakarrerako, eta Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 99.2 artikuluari jarrikiz.

Idazkaria:

- Udalbatzakoa edo hark eskuordetutakoa.

Bidezkotzat jotzen duen probetan, Epaimahai Kalifikatzaileak dagozkion gaietan adituak diren aholkularien laguntza eskatu ahalko du.

Epaimahai Kalifikatzaileko kideak parte hartzean abstenitu egin beharko dira, eta alkate-udalburuaren halaxe jakinarazi, Sektore Publikoko Araubidearen urriaren 1eko 40/2015 Legeko 23. artikuluan aurreikusitako egoeren aurrean. Halaber, hautagaien aldetik ezetsi ahalko da, Lege bereko 24. artikuluari jarraikiz.

- El responsable de la Brigada de Obras de LEMOA.

-Un miembro de la Brigada de Obras de igual o superior clasificación.

-Un representante del Instituto Vasco de Administración Pública.

- Un representante del Instituto Vasco de Administración Pública, a los solos efectos de evaluar las pruebas de acreditación del Perfil Lingüístico que se valora en la convocatoria y a tenor del artículo 99.2. de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca.

Secretario:

- El de la Corporación o persona en quien delegue.

En las pruebas en que lo considere conveniente, el Tribunal Calificador podrá recabar la colaboración de asesores expertos en las materias de que se trate.

Los miembros del Tribunal Calificador deberán abstenerse de intervenir, notificándolo en tal caso a la Sra. Alcaldesa-Presidenta, cuando concurra en ellos alguna de las circunstancias previstas en el artículo 23 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, del régimen jurídico del sector público. Asimismo, podrán ser objeto de recusación por parte de los aspirantes, conforme al artículo 24 de la misma Ley.

Epaimahai Kalifikatzailearen osaera kideen inpartzialtasun eta profesionaltasunaren printzipioetara egokituko da. Nolanahi ere, eta horrek espezialitatearen printzipioari kalte egiten ez badio, epaimahaiak gaikuntza, eskumen eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen arteko oreka gorde beharko du, bat etorriz Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.6 artikulurekin.

La composición del Tribunal Calificador se ajustará a los principios de imparcialidad y de profesionalidad de sus miembros. No obstante, y si ello no afecta al principio de especialidad, aquella ha de ser equilibrada entre mujeres y hombres con capacitación, competencia y preparación adecuadas, a tenor del artículo 20.6. de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Epaimahai Kalifikatzailearen jarduketa, une oro, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean jasotako kide anitzeko organoei buruzko xedapenen araberakoa izango da.

La actuación del Tribunal Calificador se ajustará, en todo momento, a las disposiciones que sobre los órganos colegiados se contienen en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Epaimahai Kalifikatzailea ezingo da eratu eta ezingo du jarduera hasi titularren edo ordezkoen erdia baino gehiago bertaratu ezean; eta, nolanahi ere, mahaiburua eta idazkaria bertan izan beharko dira. Epaimahai Kalifikatzaileko kide guztiek hitza eta botoa izango dute, idazkariak izan ezik; azken horrek ez du botorik izango. Akordioak bertaratuen gehiengoz hartuko dira; eta, berdinketa gertatzen bada, mahaiburuaren kalitatezko botoarekin ebatziko da.

El Tribunal Calificador no podrá constituirse ni actuar sin la asistencia de más de la mitad de sus miembros titulares o suplentes, debiendo estar presentes, en todo caso, el Presidente y el Secretario. Todos los miembros del Tribunal Calificador tendrán voz y voto, a excepción del Secretario, que carecerá de esta última facultad. Los acuerdos se adoptarán por mayoría de votos de los presentes, resolviendo, en caso de empate, el voto de calidad de quien actúe como Presidente.

Epaimahai Kalifikatzaileak funtzionatzeko autonomia osoa izango du, prozedura legezkoa dela zainduko du, eta objetibotasuna ziurtatzearen arduraduna izango da. Gainera, ordenamendu juridikoarekin bat etorriz, Oinarriak aplikatzean sor litezkeen zalantza guztiak ebatziko ditu, eta beharrezko erabaki guztiak hartuko ditu hautaketa-prozesu hau egoki egin dadin, oinarrietan aurreikusi gabeko aukerekin lotutako irizpideak ezartzearen bidez.

El Tribunal Calificador actuará con plena autonomía funcional, velando por la legalidad del procedimiento y siendo responsable de garantizar su objetividad. Asimismo, de acuerdo con el ordenamiento jurídico, resolverá todas las dudas que pudieran surgir en la aplicación de las Bases y tomará los acuerdos necesarios para el buen orden en el desarrollo del presente proceso de selección, estableciendo los criterios que deban adoptarse en relación con los supuestos no previstos en aquellas.

***ZORTZIGARRENA. HAUTAKETA-PROZESUA. LEHIAKETA-OPOSIZIOA.***

Hautaketa-proben deialdia LEMOAko Udaleko iragarki-taulan egingo da, baita Udalaren webgunean ere (www.lemoa.net), probak egiteko data, ordua eta tokia adieraziz.

Hautaketa-probetako ariketak hauek izango dira:

***OCTAVA. PROCESO DE SELECCIÓN. CONCURSO-OPOSICIÓN.***

La convocatoria de las pruebas de selección se realizará en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento de LEMOA, así como en la página web municipal (www.lemoa.net), indicando la fecha, hora y lugar de celebración de las pruebas.

Las pruebas de selección constarán de los siguientes ejercicios:

**OPOSIZIO-FASEA**

**Lehen ariketa:**

Teorikoa. Beharrezkoa eta baztertzailea hautagai guztientzat.

Epaimahai Kalifikatzaileak horretarako ezarritako epean, gaitegi orokorrean eta espezifikoan zehazten diren gaien inguruko galderak erantzun beharko dira. Oinarri hauen eranskinak dira gaitegi horiek.

**FASE DE OPOSICIÓN**

**Primer ejercicio:**

Teórico. Obligatorio y eliminatorio para todos los aspirantes.

Consistirá en contestar, en el tiempo que el Tribunal Calificador establezca al efecto, preguntas referidas a las materias que se especifican en el temario general y específico que constan como Anexo de estas Bases.

Epaimahai Kalifikatzaileak erabakiko du zein prozedurari jarraituko zaion proban (test-erako galdetegia, garatu beharreko gaia edo gaiak, eta abar), eta, hala badagokio, gaizki erantzundako galderak zigortzea.

Queda a criterio del Tribunal Calificador la fijación del procedimiento a seguir en el desarrollo de esta prueba (cuestionario tipo test, tema o temas a desarrollar, etc.) y, en su caso, la penalización de las respuestas mal contestadas.

Ariketa honetan **gehienez ere hamar (10)** puntu emango dira, eta gutxienez bost (5) puntu lortu beharko dira ariketa gainditzeko.

Este primer ejercicio se calificará sobre un **máximo de diez (10) puntos**, siendo necesario obtener un mínimo de cinco (5) puntos para superar el mismo.

**Bigarren ariketa:**

Praktikoa. Beharrezkoa eta baztertzailea hautagai guztientzat.

